

TAU 01 KOADERNOA:

ELIKADURA SEGURITASUNA

COLQUECHACA
NEKAZARI KOMUNITATEETAN,
BOLIVIA

KOKAPEN GEOGRAFIKOA, KLIMA ETA INGURUMEN EGOERA

Boliviako Chayanta probintziako Potosí departamentuko **Colquechaca** udalerrian **239 nekazari komunitate indigena** daude. Udalerriko hiri barrutian 5.000 pertsona bizi dira, baina gainerakoak (30.000 pertsona inguru) oso sakabanatuta bizi dira, topografia malkartsuaren ondorioz irispide zaila duten komunitateetan. Biztanleria dentsitatea oso txikia da, km2-ko 19 biztanlekoa.



Boliviako goi ordokiak mendi garaiez, lautadez eta haranez osatutako mendilerroak dauzka, eta bertako altitudeak 2.200 metrotik 4.800 metrora bitartekoak dira, itsas mailatik gora. Azalera osoaren % 70etik gora landaredi urriko eta aldapa handiko lurzoru harritsuak dira, eta, hortaz, **oso lur gutxi dira artzaintzarako eta nekazaritzarako egokiak.**

Altitude horietan, klima hotza da: urteko batez besteko tenperaturak 3 °C-ko minimotik 20,6 °C-ko maximora bitartekoak dira. Prezipitazioak abendutik martxora bitarte pilatzen dira, eta urteko guztizkoa 450 eta 550 mm artekoa izaten da (Donostian, prezipitazioen urteko batezbestekoa 1.500 mm-koa da, gutxi gorabehera). Klima aldaketa globalaren ondorioz, eremu horretan gero eta ohikoagoak dira **izozteak, txingor-erauntsiak, lehorte luzeak** eta bestelako fenomeno kaltegarriak, uztetan eragin larriak izaten dituztenak.

Uholde urek nahiz txingor-erauntsiek, mendietako al-dapa handiek eta mendi hegaletan gauzatutako nekazaritzak **lurzoruak higitu dituzte pixkanaka**, eta landa-redirik gabe utzi dituzte, geruza emankorrik gabe, eta ura zorupera iragazteko duten gaitasuna murriztu egin da. Ingurumenaren narriadura prozesu horri **uren nahiz lurzoruen kutsadura** erantsi behar zaio, eremu horretako meatzaritza jardueraren hondakinek eragina. Kutsadura horrek arnasketako eta azaleko gaixotasunak eragiten dizkie meatzariei.

Lur garaienetan, itsas mailatik gora 4.000 metro inguruan (puna garaia izeneko eremua), zuhaixka bakane-ko landaredi belarkara gramineo txikia nagusitzen da, baita ardientzako nahiz kamelidoentzako lurzoruak ere. 3.000 metrotik behera, sastraka ugariko landaredi belarkara hazten da, eta nekazaritzarako nahiz abelgorrien hazkuntzarako egokiak diren lurzoruak daude. Artzaintza eremuetan, lasto sailak erretzen dituzte, larreak ernaberrituz jatorrizko zelaiak hobetzeko asmoz. Jardunbide tradizional horrek eragin kaltegarria du ingurumenean, oso agresiboa delako, kea isurtzen duelako eta suaren kontrola galtzeko arriskua dagoelako; biztanleriaren osasunari ere egiten dio kalte.

Kanpoko faktore klimatiko eta topografiko horiek eta giza ekintzak **ingurumen desoreka** ekarri dute, baita **biodibertsitate galera** handia ere, eta horrek eragina du, halaber, pertsonen ongizatean eta horiek elikagaiak ekoizteko eta pobreziatik ateratzeko duten ahalmenean.

TESTUINGURU SOZIALA

Bolivia kontraste handiko herrialdea da. Baliabide natural ugari dituen arren, hala nola gasa eta mineralak, irabaziak apenas izaten dira biztanle txiroenen onerako. Hiri handietatik isolatuta dauden landa eremuetan, biztanleek behar handiak dituzte, eta muga nabarmenak dituzte ekonomikoki eta sozialki garatzeko.

Udal gobernuek ere ez diete erantzuten biztanleriaren eskaerei, eta askotan xahutu egiten dituzte erabilgarri dauzkaten aurrekontuak.

Eremu bakanduetako nekazari komunitateek pairatzen duten utzikeriaren adierazle da, adibidez, komunikazio bide egokien gabezia, baita energia elektrikoa eta ur edangarria eskura ez izatea ere.

2015ean, Colquechacako familiak muturreko pobrezian bizi ziren, eta osasun arazo larriak, hezkuntza jasotzeko zailtasunak eta baliabide ekonomiko eskasak zeuzkaten. Hona hemen egoera larri hori erakusten duten zenbait datu:

- Klima eta bizi baldintza gogorren ondorioz, **gaixotasunen intzidentzia altua** zen. 2015. urtean, 6 hilabetetik beherako haurren % 44k arnasketa infekzioak zeuzkaten; % 15ek, beherako gaixotasun akutuek, eta % 12k, konjuntibitis bakterianoa.
- Haurren % 66k **desnutrizio akutua** zuten, dieta desorekatuaren ondoriozkoa. Izan ere, tuberkuluak eta zerealak ziren haien dietaren oinarria, baina animalia jatorriko proteinen gabezia zuten, eta bitamina nahiz mineral iturri diren barazki gutxi jaten zuten.
- **Bizi itxaropena 59 urtekoa zen.** Colquechacan lehen mailako osasun zentroak bakarrik zeuden, hau da, premia-premiako arreta medikoa bakarrik eskaintzen zutenak. Mediku espezializatuengana jotzeko, Sucre izeneko hirira bidaiatu behar zuten (4 edo 5 ordu ibilgailuz). Ohikoena medikuntza tradizionala erabiltzea zen, hau da, euren ezagutza enpirikoetan eta antzinako sinesmen nahiz ohituretan oinarritutako medikuntza, bertako sendabelarren erabilera oinarritua.
- **Ugalkortasun tasa altua zen**, 8,1 jaiotzakoa emakumeko. Testuinguru landatar horretan, zenbat eta ugariagoa izan familia, orduan eta gehiago lagundu dezake landako zereginetan.
- **Emakumeen % 36 eta gizonen % 15 analfabetoak ziren.** Baziren komunitateetan sakabanatutako hezkuntza zentroak, eta horiek, biztanleriaren arabera, hastapen hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo/eta bigarren hezkuntzako ikasketak eskaintzen zituzten. Udalerriko hezkuntza eskaintza gorabehera, eskola uzten zutenen tasa % 8koa zen.
- **Familia gehienek egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizirauten zuten.**

JARDUERA EKONOMIKOAK

Colquechacako familien jarduera nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza dira, eta, neurri apalagoan, eraikuntza, artisautza (artile naturalez edo sintetikoak egindako ehunak) eta meatzaritza (meatzaritzako kooperatiban).

2015ean, landatutako 9.000 hektareetatik % 3k bakarrik zuten ureztapena, hau da, **idorreko nekazaritza** zen, ia oso-osorik. Labore ohikoenak patata, baba, garia, garagarra eta oka (tuberkulu mota bat) ziren, baina ez zuten erabiltzen laboreak txandakatzeko ezein dinamika lurzoruaren mantenugaiak agortzea ekiditeko. **Modu tradizionalean** ekoizten zuten, **eskuko tresnak eta animaliak** erabiliz eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako jardunbideak aplikatuz; dena den, antzinako jardunbide on batzuk galduak zeuden jada. Ez zeukaten ekoizpena eta merkaturatzea optimizatzeko



aukera emango zien inolako ekoizpen azpiegiturarik, eta sarri etxeetako gelak edo logelak erabiltzen zituzten landutako produktuak biltegitratzeko.



Colquechacan ohikoa da, halaber, ardiak, abelgorriak, ahuntzak eta kamelidoak (llamak) haztea, eta jarduera hori etxeko hegaztien eta txerrien hazkuntzarekin osatzen da sarri. Jarduera horren ahulgune nagusiak honako hauek ziren: **bazka gutxi** zegoenazienda elikatzeke; **gehiegizko larratzearen** ondorioz (abere gehiegi lursail txikiegi batean bazkatzen jartzea), bazka naturala agortzen ari zen; abereek **gaixotasunak** zeuzkaten, eta espezie batzuk **genetikoki narriatzen** ari ziren.

Ez zuten kontzientziatorik ura, lurzorua, landaredia eta gainerako baliabide naturalak modu jasangarrian kudeatzeak duen garrantziaren gainean. Epe motzeko ikuspegia zuten, unean-uneko oinarritzako beharrak asetzea xedetzat zuena, eta, horren ondorioz, familiak **epe ertain edo luzera izan litezkeen ondorioak kontuan hartu gabe ustiatzen zituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako baliabideak.**

Jarrera horri dagokionez, kontuan hartu behar da baliabide naturalen kudeaketa desegokiak eta elikadura nahiz osasun ohitura desegokiak Colquechacako biztanleriaren hezkuntza maila baxurekin lotuta daudela.

Gizonek zein emakumeek parte hartzen dute landako lanetan. Eskuarki, gizonak lurra goldatzeaz eta ereiteaz arduratzen dira, eta emakumeak, berriz, uzta jaso eta biltzeaz eta animaliak zaintzeaz. Emakumeek, horrez gainera, etxeko lanak egin, eta seme-alabak zaintzen dituzte, eta kontsumorako nahiz ureztapenerako ura biltzen dute iturburu eta ibaieetatik. Lan banaketa desorekatua izan arren, emakumeek etxean eta etxetik kanpo egiten zuten lana erabat gutxietsita zegoen, eta gizonek hartzen zituzten ekoizpen jarduerari buruzko erabaki guztiak.

Horrez gainera, ekoizpen jarduera horiek oso etekin txikia ematen zuten, eta zatirik handiena **autokontsumora** bideratzen zuten. Noizbehinka animalia bat saldu edo patata soberakin txikia merkaturatuta beste elikagai batzuk eskura zitzaizketen, arroza edo fideoak, besteak beste. Nahiz eta FAOk (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea) helduek egunean 2.250 kilokaloria hartzea gomendatzen duen, eremu horretan 1.300-1.500 kaloria inguru baino ez zituzten hartzen.

Baliabide ekonomiko gutxi zeuzkatenez, ezin zuten inbertsiorik egin ekoizpen sistema hobetzeko edo osasunarekin, hezkuntzarekin edo etxebizitza egokiekin lotutako beste behar batzuei erantzuteko. Hori dela eta, batzuk behartuta zeuden aldi baterako beste zona batzuetara alde egitera, lan egin eta diru gehiago irabazi ahal izateko.

KULTURA ETA ANTOLAMENDU KOMUNALA

Colquechacan, familien % 96 **indigenak dira, kitxuak**, eta berezko hizkuntza eta ohiturak dituzte. Azken urteetan egoerak hobera egin duen arren eta Boliviako herri indigenen kultura aberastasuna aitortzen ari diren arren, indigenek gizarte bazterkeria larria jasan izan dute hamarkada luzeetan.

Inken aurreko antolamendu tradizionalak, nekazari komunitateetan oinarrituak, indarrean jarraitzen du gaur egun, eta **Nekazarien Sindikatua** du



izena. Zuzendaritza batzordeen bidez, sindikatuak komunitatearen proposamenak eta eskaerak aurkez diezazkiekete udal gobernuei, udal aurrekontuetan txerta ditzaten. 2015ean, Colquechacako komunitateetan oso ahulak ziren erakunde horiek, ez zegoelako lidergorik, eta ez zeukatelako ezagutzarik ez kudeaketa tresnei buruz (planak, estatutuak, etab.), ez herritarrek parte hartzeko prozedura nahiz bideei buruz. Informazioa lortzeko zailtasunak eta herrialdean indarrean zeuden lege eta arauak buruzko ezagutzarik ezak mugatu egiten zuen haien partaidetza eta udalerriko edo probintziako agintariengan eragiteko ahalmena.

Badira, halaber, Nekazarien Elkarte Ekonomikoak, nekazaritzako eta artisautzako ekoizleek osatuak, baita emakumeen elkarte espezifikoak ere, baina horiek guztiak ahulak ziren, eta oso baliabide tekniko eta ekonomiko urriak zeuzkaten.

EMAKUMEEN EGOERA

Lur horietan kultura patriarkal argia dago, eta kultura horrek emakumea diskriminatzen zuen arlo sozial, ekonomiko, kultural eta politikoan. Gutxietsi egiten ziren emakumeen hiru rolak, erreproduktiboa, produktiboa eta komunitarioa, haiek etxeko (eta herrialdeko) ekonomiari egiten dioten ekarpena, eta horrek berekin zekarren haiei lan karga gehiegizkoa ematea, eta emakumeek osasun narriadura larria jasatea. Horrez gainera, elikagai eskasiako testuinguru horretan, gizonezkoen elikadura lehenesten zuten, kultura eredu horri jarraituz.

Udal eremuan, emakume gutxi aurkeztzen zuten beren burua erantzukizun karguetarako. Komunitatearen eremuan, gizonek hartzen zituzten erabakiak, eta emakumeek oso partaidetza pasiboa izaten zuten bileretan, gizonen azpitik zeudela eta haiek baino gaitasun txikiagoa zutela sentitzen zutelako. Haien partaidetza presentziala bakarrik izaten zen, sindikatueterako buruak eta Eskola Batzarra hautatzen zirenean. Familiaren baitan, aitortu gabeko lan karga gehiegizkoaz gain, indarkeria eta tratatu txarrak jasaten zituzten sarri. Egoera hori bazen ere, emakumeak hasiak ziren komunitate mailako emakume elkarteak sortzen, ahotsa izateko eta kontuan hartzen hasi zitezen beren ikuspuntuak eta komunitateetako bizi baldintzak hobetzeko zeuzkaten proposamenak.

Testuinguru horretan, **TAU Fundazioak** eta bertan erkide duen **Tomás Katari Institutu Politeknikoak** Colquechacako nekazari komunitate kitxuekin lan egin dute, **familien elikadura segurtasuna** sustatzeko, **ikuspuntutzat harturik subiranotasuna, genero berdintasuna eta ingurumen iraunkortasuna**.

Garapen egiaz jasangarriko prozesu baten baitan, lehenetasuna du lurraren egungo erabileraren eta erabilera potentzialaren arteko oreka lortzeak, ingurumenaren narriadura Colquechacako nekazari komunitateek pairatzen duten pobrezia egoeraren funtsezko arrazoietakoa bat baita.



Emakumeak arduratzen dira, nagusiki, etxeko lanez

*“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren, uraren eta saneamenduaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko” (GFA 2018 ERAL 012/01) proiektuaren hezkuntza materiala. ICLI GGKEk eta Zabalketa Elkarteak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.*

Egileak: Tau Fundazioa eta Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Tau Fundazioa

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina
D.L. SS-691-2019



Tau Fundazioaren, ICLIn eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz.

www.taufundazioa.org www.icli.info
www.zabalketa.org

